

HUHEZIKo lau ikerlarik irabazi dute Soziolinguistika Klusterrak antolatutako Hausnartu lehiaketaren sarietako bat

2014/01/13

Aitor Zuberogitia, Eneko Bidegain, Txema Egaña eta Goio Arana HUHEZIKo Hezikom ikerketa taldeko kideek irabazi dute Soziolinguistika Klusterrak antolatutako Hausnartu lehiaketaren hirugarren saria.

MUko irakasleek aurkeztutako lanaren izena da **Sormen-ekosistema bat euskarazko komunikazioarentzat**. Artikulu horretan, Hezikom taldeko ikerlariek aztertu dituzte euskarazko hedabideen audientziak digitalizaio garaian. Gainera, lanak proposatzen du sormen-ekosistema bat gauzatzea gai izango dena bermatzen euskarazko hedabideen etengabeko hobekuntza. Ikerlarien arabera, sormen-ekosistema horren parte izan behar dute unibertsitateek, administrazio publikoek eta komunikabideek eurek.

Lehiaketak duen sari ekonomikoaz gain (700 euro), sariak dakar lanaren argitaratzea. Hartara, lan irabazleak publikatuko dira Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen duen Bat soziologia aldizkariaren hurrengo zenbakian.

HUHEZIKo ikerlariak egindakoarekin batera, best bi lan izan dira sarituak Soziolinguistika Klusterrak lehiaketaren 4. edizio honetan. Lehen saria irabazi du EMUN enpresako Haritz Goikoetxearen *Lantokietako ahozko erabileraren neurketak* lanak. Bigarren saria, ostera, Garbiñe Bereziartua EHUKo Dream taldekoaren eskuetan geratu da. Bereziartuaren lanak *Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo* du izenburua.

Sari-banaketa publikoari zabalik izango den ekitaldian egingo da, baina, oraindik zehaztu barik dago ekitaldi egingo den data eta lekua.



HUHEZIKo irakasleek idatzitako ikerketa argitaratuko da Bat soziolinguistika aldizkariaren hurrengo zenbakian.